

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
6/2014	R21/2015	02-12-2015	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Egiaztapen-jardueretarako administrazio eskuduna. 2010Eko ekitaldia.

R 21/2015 Ebazpena

6/2014 Espedientea

Vitoria-Gasteizen, 2015eko abenduaren 2an

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Kontzertu Ekonomikoko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako hau

HITZARTU DU

Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA) 2014ko urtarrilaren 31ko idazkiaren bidez aurkeztutako gatazkaren inguruan. Horren sarrera otsailaren 7an erregistratu zen eta Arauak Garatzeko eta Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuaren buruak sinatu zuen. Horren bidez, Estatuaren Zerga Administrazioaren aginpiderik eza aitortzeko eskatzen zaio, 1. ERAKUNDEAREN (IFZ: ----, aurrerantzean «erakundea») inguruko egiaztapen-jarduerak gauzatzeko, 2010eko balio erantsiaren gaineko zergari dagokionez, bai eta horien ondoriozko ondoko jarduerak gauzatzeko ere, horren ezgaitasuna aitortuta. Era berean, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga Administrazioa dela aipatutako ekitaldian zergapekoaren inguruan egiaztapen-, erregularizazio- eta ikerkuntza-jarduerak gauzatzeko eskumena duen bakarra ezartzeko eskatzen zaio. Gatazka 06/2014 espediente-zenbakiarekin izapidetzen da Arbitraje Batzordearen aurrean, Isaac Merino Jara jauna txostengile duela.

I. AURREKARIAK

1. Espedienteak honako aurrekari hauek ditu:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
6/2014	R21/2015	02-12-2015	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Egiaztapen-jardueretarako administrazio eskuduna. 2010Eko ekitaldia.

- 1. ERAKUNDEAK (IFZ: ----) Gipuzkoan du helbide fiskala, eta horren eragiketen bolumena 7 milioi eurotik gorakoa da 2009ko ekitaldian. 2010eko ekitaldian, balio erantsiaren gaineko zerga Gipuzkoako, Bizkaiko eta Estatuko Zerga Administrazioetan ordaindu zuen, lurralde bakoitzean gauzatutako eragiketen ehunekoaren arabera. Zehazki, 2010eko ekitaldiko azken aldiaren BEZ aitortpenean, 1. KOPURUKO behin betiko eragiketa-bolumen osoa aitortu zuen zergapekoak, lurraldeen arteko honako banaketarekin: Estatu, % 29,31; Gipuzkoa, % 54,40, eta Bizkaia, % 16,20.

Gatazkan dauden Administrazioek eta 1. ERAKUNDEAK ez dute eztabaidan jartzen GFAk (Gipuzkoako Foru Aldundia) erakunde horrekiko ikuskapen-eskumena duenik, aipaturako zergarako eta aldirako.

- 2012ko maiatzaren 24an, Euskadiko Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren Ordezkaritza Bereziaren Ikuskapeneko Eskualde Sailak 1. ERAKUNDEAREN ENPRESA TALDEARI (IFZ: ----) buruzko txostena jakinarazi zion Gipuzkoako Foru Aldundiko Ikuskapeneko Zuzendariordetza Orokorrari, bai eta Aragoiko Ikuskapenaren Informazio Garrantzitsuaren Fitxa eta 1. ERAKUNDEARI buruzko dokumentazioa ere. Bertan, aipaturako zergapekoak gauzatutako 2.KOPURUA eurotik gorako lanen existentzia aldarrikatzen zen, eta gauzapenean jasandako horren BEZ kendu egin da, baina ez da agertzen azken hartzekodunari (1. UDALERRIAREN Udala, Zaragoza) entregatzean sortutako BEZ jasanarazi eta aitortu denik.

- 2012an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ikuskapeneko Zuzendariordetza Orokorrak 2. ERAKUNDEAK (IFZ: ----) 2007an eta 2008an 1. UDALERRIAN (Zaragoza) gauzatutako eragiketengatik aurkeztutako aitortpenen egiaztapen-jarduerak hasi zituen; izan ere, 2. ERAKUNDEAK 1. ERAKUNDEA xurgatu zuen 2007ko abenduaren 26an.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
6/2014	R21/2015	02-12-2015	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Egiaztapen-jardueretarako administrazio eskuduna. 2010Eko ekitaldia.

- 2013ko otsailaren 6an, 1. ERAKUNDEAK aitorten osagarria erregistratu zuen (2013ko urtarrilaren 31n) Gipuzkoako (horrek zuen eskumena, helbide fiskala dela eta), Bizkaiko eta Estatuko (ZAEA) Zerga Administrazioen aurrean. Horren bidez, 2010eko ekitaldiko 06 aldiaren BEZen borondatezko erregularizazioa gauzatu zuen, 3. KOPURUA eurotik sortutako BEZ kuota barne (zerga-oinarria: 4. KOPURUA euro). Zergapekoak aurkeztutako idazkian, Zerga Administrazioei eskatzen die «borondatezko erregularizazio hau onartzeko eta, ondorioz, eragiketa-bolumena zein ondoriozko tributazio % zuzentzeko, aipatutako ekitaldian tributaturako hiru Administrazioen alde. Ondorioz, zuzenketa hori onartuko litzateke eta dagozkion ordezkio likidazioak igorriko lirateke, Zerga Administrazio horren aldeko diru-sarrerarekin».

- Aipatutako erregularizazioaren ondorioz, Estatuko Administrazioari egotzi dakioken eragiketa-bolumena handitu zen aipatutako 2010eko ekitaldian, eta zuzendutako eragiketa-bolumena 5. KOPURUA eurokoa izan zen, Administrazioen arteko zuzendutako banaketa honekin: Estatua, % 55,02; Gipuzkoa, % 34,67, eta Bizkaia, % 10,31.

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailaren BEZ Kudeaketa Zerbitzuak 1. ERAKUNDEAK gauzatutako borondatezko erregularizazioa onartu zuen, 2013ko otsailaren 14an, zegozkion aldi baterako likidazioak emanda, euren errekaruekin eta berandutze-interesekin.

- 2013ko otsailaren 15ean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailaren Ikuskapenak erregularizatu beharreko eragiketen inguruan gauzatutako egiaztapeneko ikuskapen-jardueren amaiera-txostena igorri zuen. Aipatutako txostenean adierazten da zergapekoa 1. ZENBAKIA planean sartu zela, 1. ERAKUNDEAK xurgatutako 2. ERAKUNDEAK (---) 2007 eta 2008 aldian, Aragoiko 1. UDALERRIAN gauzatutako eragiketen aitortzea egiaztatzeko; 2013/02/06an, 1. ERAKUNDEAK Zeharkako Zergen Kudeaketa

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
6/2014	R21/2015	02-12-2015	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Egiaztapen-jardueretarako administrazio eskuduna. 2010Eko ekitaldia.

Zerbitzuari eskaria aurkeztu ziola, 2010eko ekitaldiko 06 aldian, eragiketabolumen jakin bat eta horri dagokion jasanarazitako kuota sartzeko; aipatutako Zerbitzuak «2010eko ekaineko eta ondoko aldietako aitortpenen edukia aldatu duela, 1. ERAKUNDEAK eskatutako datuen arabera», eta zergapekoaren egiaztapeneko ikuskapen-jarduerak amaitutzat jotzen direla; izan ere, borondatez aitortu ditu bere eragiketak eta, ondorioz, espedientea Foru Ogasunaren artxibora pasatzea proposatzen da.

- 2013ko otsailaren 20an, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak informazioa eskatu zion Gipuzkoako Foru Aldundiari, honako bi gaien inguruan: «2012ko maiatzaren 28an, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak 2. ERAKUNDEAREN eta 1. ERAKUNDEAREN inguruan Gipuzkoako Foru Ogasunari bidalitako idazkiak ikuskapen-jardueraren bat eragin ote zuen eta, kasu horretan, horren emaitza»; eta «aldi berean, Gipuzkoako Foru Ogasunak akatsa dela eta, 2010eko ekitaldiko 06 aldian 3. KOPURUA euroko jasanarazitako BEZ kuota sortutzat jotzen dela adierazten duen 13ko urtarrilaren 31ko 1. ERAKUNDEAREN idazkia jaso ote zuen.»

- Eskaera horri erantzunez, hurrengo egunean, 2013ko otsailaren 21ean, Gipuzkoako Foru Aldundiak posta elektronikoz bidali zion Zerga Administrazioko Estatu Agentziari 2013ko otsailaren 15eko txostena, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailaren Ikuskapenarena, erregularizatu beharreko eragiketen inguruan gauzatutako egiaztapen-jardueren amaierari buruzkoa.

- 2013ko martxoaren 20ean, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren Euskadiko Ordezkaritza Bereziaren Enpresa Handien Kudeaketa Unitateak datuen egiaztapen-prozedura hasi zuen, zergapekoak aitortutako kopuruak egiaztatzeko. Aipatutako prozeduran, aipatutako erregularizazioaren

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
6/2014	R21/2015	02-12-2015	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Egiaztapen-jardueretarako administrazio eskuduna. 2010Eko ekitaldia.

desegokitasuna aldarrikatu zen, bai eta 12/2010 aldiaren egiaztapen mugatuko prozedura hasteko beharra ere.

- 2013ko irailaren 23an, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak erakundeari jakinarazi zion 2010eko ekitaldiko 06 aldiko BEZaren inguruko datuen egiaztapen-prozeduraren ebazpen zehatza. Horren bidez, honako hau ondorioztatzen du: «prozedura hori eragin zuten jazoerak argi utzita, bulego honek jakinarazten dizu, indarrean dagoen araudiaren arabera, ezin dela zerga-egoera erregularizatu».

- 2013ko irailaren 23an ere, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak egiaztapen mugatuko prozeduraren hasiera jakinarazi zion erakundeari, 2010eko ekitaldiaren 12 aldiko BEZaren inguruan, alegazioen izapidea eta aldi baterako likidazioaren proposamena jakinarazita, honako irismenarekin:

«*Erregimen orokorreko eragiketen zerga-oinarriengatik eta sortutako kuotengatik aitortutako datuak aldi horretan sortutako zerga-gertaerekin bat datozela egiaztatzea, 2013.02.06ko idazkiari eta RGE 00NNNNNN 2013ri dagokienez.

*Urteko Erregularizazio Emaizaren kontzeptuan aitortutako zenbatekoa egiaztatzea, 12/2002 Legearen 29. Artikuluaren arabera.

*Aurrekoaren ondorioz aldatutako tributazio-ehunekoa berriz kalkulatzeari».

- Aurreko jakinarazpena jaso ondoren, erakundeak 2013ko urriaren 11ko idazkia aurkeztu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailaren aurrean urriaren 14an erregistratuta, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren aipatutako jarduerak jakinarazita.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
6/2014	R21/2015	02-12-2015	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Egiaztapen-jardueretarako administrazio eskuduna. 2010Eko ekitaldia.

- 2013ko urriaren 10ean, erakundeak alegazio-idazkia aurkeztu zuen Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren aurrean, 2010eko ekitaldiko 12 aldiaren likidazio-proposamenaren inguruan. Horiek gaitzetsi egin ziren, eta zegokion likidazioa eman zen; hori erakundeari jakinarazi zitzaion 2013ko urriaren 30ean, sartu beharreko 6. KOPURUA euroko kopuru osoa eskatuta. Horietatik, 7. KOPURUA euro kuotari dagozkio, eta 8. KOPURUA euro, berriz, berandutze-interesei. Ondorioz, Estatuko Administrazioari egozgarria zaion tributazio-ehunekoa aldatzen da, % 69,04an kokatuta. Laburbilduz, mugatutako egiaztapeneko kudeaketa-prozeduraren bidez, aldi baterako likidazioa gauzatzen da. Bertan, erakundeak borondatez erregularizatutako eragiketen sortzapena aldatzen da, zerga-oinarria handituta eta, horren ondorioz, baita aitortutako eragiketen bolumena eta Administrazio bakoitzari dagokion horien proportzioa ere.

- 2013ko azaroaren 7an, erakundeak aurkeztutako idazkia erregistratu zen Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailean, aurretik aipatutako dokumentazioarekin batera.

- 2013ko azaroaren 12an, horren sarrera 27an erregistratuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak Zerga Administrazioiko Estatu Agentziari jakinarazi zion 2013ko otsailaren 14an 1. ERAKUNDEARI igorritako 06/2010-12/2010 aldiari dagozkion behin-behineko likidazioen emaitza. Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak hori eskatu zion 2013ko urriaren 16an prestatutako eta hurrengo egunean erregistratutako idazkiaren bidez.

- 2013ko azaroaren 29an, 1. ERAKUNDEAK erreklamazio ekonomiko-administratiboa jarri zuen Auzitegi Ekonomiko Administratibo Nagusiaren aurrean, 2013ko urriaren 30ean erakundeari jakinarazitako Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren Enpresa Handien Kudeaketarako Unitateak emandako behin-behineko likidazioaren aurka.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
6/2014	R21/2015	02-12-2015	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Egiaptapen-jardueretarako administrazio eskuduna. 2010Eko ekitaldia.

- Estatuko Administrazioari egun berean jakinarazitako abenduaren 10eko 1063/2013 Foru Aginduaren bidez, inhibizio-errekerimendua egin zitzaion Administrazio horri, 1. ERAKUNDEAREN inguruan gauzatzen ari zen egiaztapen-jarduerak gauzatzeko eskumenari zegokionez.
- 2014ko urtarrilaren 10ean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailean erregistratu zen Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren Euskadiko ordezkari bereziak sinatutako egun bereko idazkia, inhibizio-errekerimendua ukatuz.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak aurreko aurrekarien ondoriozko gatazka aurkeztea erabaki zuen Arbitraje Batzordearen aurrean, 2014ko urtarrilaren 28an.
- 2014ko urtarrilaren 31n, Gipuzkoako Foru Aldundiak 1760/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 11. artikuluan adierazitako nahitaezko izapidea gauzatu zuen, Eusko Jaurlaritzako Ogasuneko eta Administrazio Publikoko Sailari (egun, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saila) idatzizko jakinarazpena igorrita.
- 2014ko otsailaren 7an, Arbitraje Batzordeari aurkeztu zitzaion gatazka, eta hori erakundeari jakinarazi zion Gipuzkoako Foru Aldundiak hilaren 17an, eta Zerga Administrazioko Estatu Agentziak, 2014ko martxoaren 3an.
- 2014ko otsailaren 21ean, gatazkaren berri izan bezain laster, erakundeak zirkunstantzia hori jakinarazi zion Auzitegi Ekonomiko Administratibo Zentralari.
- 2014ko maiatzaren 23an eta ekainaren 1ean, 1. ERAKUNDEAK Auzitegi Ekonomiko Administratibo Zentralak bidalitako jakinarazpenak jaso zituen.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
6/2014	R21/2015	02-12-2015	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Egiatzapen-jardueretarako administrazio eskuduna. 2010Eko ekitaldia.

Horiek igorritako likidazioa geldiaraztea eskatzeko izapiderearen ukapenari eta alegazioak gauzatzeko epearen hasiera barne hartzen duen espedientearen jakinarazpenari buruzkoak dira, hurrenez hurren.

- 2014ko ekainaren 18an, Gipuzkoako Foru Aldundiak idazkia aurkeztu zuen Arbitraje Batzordearen aurrean. Bertan, Auzitegi Ekonomiko Administratibo Zentralari errekerimendua egitea eskatzen zion, 2014ko otsailaren 7an, Arbitraje Batzordearen aurrean aurkeztutako gatazka-xedeari buruzko bestelako jarduerarik egin ez dezan.

- 2014ko uztailaren 21ean, Arbitraje Batzordeak gatazkaren izapidea onartu zuen, eta hori Administrazio interesdunei eta erakundeari jakinarazi zitzaion.

- 2014ko abuztuaren 4an, Arbitraje Batzordeak Auzitegi Ekonomiko Administratibo Zentralari jakinarazi zion gatazkaren izapiderearen onarpena, jarduerak gelditu ditzan.

- Zerga Administrazioko Estatu Agentziak alegazioak aurkeztu zituen Posta Zerbitzuan aurkeztutako eta Arbitraje Batzordean 2014ko urriaren 9an erregistratutako idazkiaren bidez.

- 2014ko urriaren 17an, Arbitraje Batzordeak espedientea jakinaraztea adostu zuen, hori erakutsita eta alegazioak aurkezteko epea irekita. Zerga Administrazioko Estatu Agentziak ez zuen alegaziorik aurkeztu. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta erakundeak funtsean berdinak ziren alegazioak aurkeztu zituzten, azaroaren 20an eta 24an, hurrenez hurren.

2015eko ekainaren 26ko saioan, gatazkaren deliberazioan, Arbitraje Batzordea Bizkaiko Foru Aldundiari (BFA) prozedura honen berri emateko beharraz ohartu zen; izan ere, hori sortutako administrazio-jarduerak horren parte-hartze

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikatutako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
6/2014	R21/2015	02-12-2015	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Egiztapen-jardueretarako administrazio eskuduna. 2010Eko ekitaldia.

ehunekoaren murrizketa eragiten dute 2010eko ekitaldiko 1. ERAKUNDEAREN BEZari dagokionez. Horrek alegazioak aurkeztu zituen 2015eko uztailaren 30ean, eta bere arrazoibideak Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazitakoen oso antzekoak dira.

- Prozedura Arbitraje Batzordearen Araudian xedatutakoaren arabera izapidetu da.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Balio erantsiaren gaineko zergaren ikuskapen-eskumenari buruz ari garenez, maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Itunaren 19. eta 29.Sei artikulua errepikatuz hasiko gara:

«19. artikulua. Zergaren ikuskapena.

«Bat. Subjektu pasiboak Euskadin badu zerga-egoitza, lurraldearen arabera eskumena duen foru-aldundiak egingo du zergaren ikuskapena.

Hala ere, subjektu pasiboak aurreko ekitaldian egindako eragiketen zenbatekoa 7 milioi eurotik gorakoa bada eta eragiketa guztien ehuneko 75 edo gehiago lurralde erkidean egina bada, subjektu pasiboa ikuskatzeko eskumena Estatuko Administrazioarena izango da.

Halaber, zerga-egoitza lurralde erkidean duten subjektu pasiboen ikuskapena lurraldearen arabera eskumena duen foru-aldundiak egingo du baldin eta subjektu pasiboak aurreko ekitaldian egindako eragiketen zenbatekoa 7 milioi eurotik gorakoa izan eta eragiketa guztiak euskal lurraldean eginak badira.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
6/2014	R21/2015	02-12-2015	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Egiaztapen-jardueretarako administrazio eskuduna. 2010Eko ekitaldia.

Bi. Ikuskapenak egiteko lanetan, eskumena duen administrazio arauak bete beharko dira, aurreko idatz-zatian ezarritakoaren arabera. Gainerako administrazioek lagundu egin diezaioke eskumena duen administrazioari.

Ikuskapen-lan horien ondorioz, zorren bat jaso edo kopururen bat itzuli behar dela agertzen bada, eta zor edo kopuru hori bi administrazioei badagokie, ikuskapen-lan horiek egin dituen administrazioak kobratu edo itzuliko du, euren artean dagozkien konpentsazioei kalterik egin gabe. Eskumena duen administrazio organo ikuskatzaileek euren jardunaren emaitzen berri emango diete ukitutako gainerako administrazioei.

Hirugarrena. Aurreko idatz-zatian xedatutakoak ezin ditu foru-aldundiek beren lurraldeetan egiaztapenak eta ikerketak egiteko dituzten eskumenak murriztu. Baina foru-aldundien jarduera horiek ez dute, administrazio-organoen eskudunen jardueren ondorioz egindako behin betiko likidazioak direla eta, inolako ondorio ekonomikorik izango zergadunengan.

Lau. Administrazio eskudunak egiaztapenetan zehaztutako proportzioak kitatutako betebeharrei dagokienean ere bete beharko ditu subjektu pasiboak. Horrek ez du esan nahi bi administrazioen artean behin betiko onartzen direnak bete behar ez direnik».

(...)

29. artikulua. Zergaren kudeaketa eta ikuskapena.

(...)

Sei. Ikuskapena honako irizpide hauen arabera egingo da:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
6/2014	R21/2015	02-12-2015	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Egiaztapen-jardueretarako administrazio eskuduna. 2010Eko ekitaldia.

a) Zergak foru-aldundietan soilik edo, hala badagokio, Estatuko Administrazioan ordaindu behar dituzten subjektu pasiboak ikuskatzea administrazio horietako bakoitzeko zerga-ikuskaritzen lana izango da.

b) Zergak lurralde erkidean eta euskal lurraldean egindako eragiketabolumenaren proportzioan ordaindu behar dituzten subjektu pasiboak ikuskatzeko, honako arau hauek bete beharko dira:

Lehena. Zerga-egoitza lurralde erkidean duten subjektu pasiboak: Estatuko administrazioko organoek egingo dute egiaztapena eta ikerketa. Administrazio horrek, era berean, subjektu pasiboak administrazio eskudun guztietan tributuen aldetik duen egoera erregularizatzeko lana hartuko du, administrazio bati eta besteari dagokion tributu-proportzioa barne

Bigarrena. Zerga-egoitza euskal lurraldean duten subjektu pasiboak: zerga egoitzari dagokion foru-administrazioko organo eskudunek egingo dute egiaztapena eta ikerketa, Estatuko administrazioak laguntza eman badezake ere. Ondorioak eskumena duten administrazio guztietan bete beharko dira, administrazio horiei dagokien tributazio-proportzioa barne. Baldin eta subjektu pasiboak aurreko ekitaldiko bere eragiketen ehuneko 75 edo gehiago lurralde erkidean egin badu, ezarritako lotura-guneen arabera, Estatuko Administrazioa izango da eskudun, foru aldundien lankidetzara eragotzi gabe

Ikuskapen-lan horien ondorioz, zorren bat jaso edo kopururen bat itzuli behar dela agertzen bada, eta zor edo kopuru hori bi administrazioei badagokie, ikuskapen-lan horiek egin dituen

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
6/2014	R21/2015	02-12-2015	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Egiaztapen-jardueretarako administrazio eskuduna. 2010Eko ekitaldia.

administrazioak kobratu edo itzuliko du. Dagozkion konpentsazioak gero emango dizkiote bata besteari, beharrezkoa bada. Eskumena duen administrazio organo ikuskatzaileek euren jardunaren emaitzen berri emango diete ukitutako gainerako administrazioei.

Hirugarrena. Aurreko arauetan xedatutakoa bete egin behar bada ere, horrek ezin ditu foru-aldundiei -nori bere lurralde barruan- egiaztapenak eta ikerketak egiteko dagozkien eskumenak murriztu. Baina, era berean, foru-aldundien jarduerak ezin dute, administrazio eskudunetako organoen jardueren ondorioz egindako behin betiko kitapenen inguruan, zergapekoen artean inongo ondorio ekonomikorik izan.

Laugarrena. Administrazio eskudunak egiaztapenetan ezarritako proportzioak subjektu pasiboak ere bete beharko ditu, likidatutako betebeharren inguruan. Horrek ez du esan nahi administrazio eskudunen artean behin betiko zehazten dituztenak bete behar ez direnik, hala ere».

2. Ez da eztabaidan jartzen, oraingoan, Gipuzkoako Foru Aldundiak duela ikuskapen-eskumena, kontuan izanda 1. ERAKUNDEAK Gipuzkoan duela helbide fiskala, 2009ko ekitaldiko eragiketa-bolumena 7 milioi eurotik gorakoa dela, eta erakundeak lurralde erkidean eta ekitaldi berean gauzatutako eragiketek bere eragiketa-bolumen osoaren % 75 gainditzen ez dutela.

3. Beraz, 2015eko maiatzaren 11ko Auzitegi Gorenaren Epaitik ateratako irizpideari jarraiki (hirugarren funts juridikoa), 441/2013 errekurtsuari dagokiona, bi gauza gelditu behar dira argi: bat, Administrazio bakarrari dagokion 2010eko ekitaldiko balio erantsiaren gaineko zergarengatiko 1. ERAKUNDEARI buruzko egiaztapeneko eta ikerkuntzako ikuskapen-jarduerak gauzatzeko eskumena;

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
6/2014	R21/2015	02-12-2015	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Egiaztapen-jardueretarako administrazio eskuduna. 2010Eko ekitaldia.

eta bestea, zerga horretarako eta ekitaldi horretan, 1. ERAKUNDEAK aitortutako eragiketen bolumen osoaren egiaztapena, Zerga Administrazio bakoitzari dagokion tributazio-proporzioa zehazteko, horren gaineko ikuskapen-eskumena zuen Administrazioak bakarrik egin zezakeen.

4. Esan bezala, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak ez du eztabaidan jartzen Gipuzkoako Foru Aldundiak ikuskapen-eskumena duenik. Hala ere, hori alde batera utzita, bere ustez, «Zerga Administrazioko Estatu Agentziak tributatuak kudeatzeko bidean gauzatutako egiaztapen-jarduerak (...) horretarako eskumena duen Administrazioaren (Gipuzkoako Foru Aldundia), tributuen ikuskapeneko prozeduraren aginduaren falta eta, tributatuak kudeatzeko bidean, horrek egiaztatze prozeduren emaitzaren jakinarazpen-falta direla eta gertatu dira».

5. Gipuzkoako Foru Aldundiak alegazio horri emandako erantzuna hurrengo terminoetan adierazten da: «Ekonomia Itunak, indarrean dagoen araudiko inolako manuk eta hartutako bestelako hitzarmenek ez dute jasotzen egiaztatze eta ikertze eskumenik ez duen Administrazioak halako eskumenak bere gain hartu behar dituenik, eskudunak gauzatzen ez dituelako eta, are gehiago, egiaztatze eta ikertze azken horren eskubidea oraindik gauzatu daitekeenean, preskribatu ez delako».

6. Ikuskapen-eskumena duen Administrazioaren gelditasunaren eragin inguruko Arbitraje Batzordearen irizpidea 23/2010 espedientea duen abenduaren 29ko R15/20012 ebazpenean jasotzen da. Horren 5. Zuzenbideko Oinarrian, honako hau adierazten dugu:

«Zerga-kudeaketa terminoaren adiera zabalenetik, zentzuzkoa dirudi ulertzea horrek zergapekoen aurkeztutako autolikidazioak egiaztatze funtzioa babesten duela, horiek indarreko araudira egokitzen direla

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
6/2014	R21/2015	02-12-2015	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Egiaztapen-jardueretarako administrazio eskuduna. 2010Eko ekitaldia.

aztertzeko, bai eta, zenbait mugarekin, horiek gauzatutako eragiketak ikertzeko funtzioa ere, Zerga Administrazioak jadanik badituen informazioetatik ondorioztatutako zerga-oinarriaren gehikuntzak erabakitzeko.»

Nolanahi ere, kudeaketa-prozeduran sartzen ez dena da, zergaren araudiaren aplikazio okerrak justifikatutako behin-behineko likidazio zuzentzailearen gaitasunak erabiliz, zerga-zorren aspektu erabakigarriak aldatzea, zergapekoak aplikagarriak ziren arauen arabera jardun zuela argi eta garbi dagoen gaietan eta, Espainian indarrean dagoen araudi jakin baten gaineko Europako Batzordearen erabakiaren gauzapena bezala, exegesi juridiko konplexua behar duten argudioak arrazoi hartuta.

Eztabaidan jarri ezin den indarreko araudiaren arabera gauzatu ziren eta, ondorioz, gaitzespenenik merezi ez duten baina, hala ere, babesten zituen araudi nazionalaren bat-bateko legezotasun ezaren ondorioz okerrak bihurtu diren autolikidazioen aldaketa kudeaketako administrazio-jardueratik kanpo gelditzen den eta ikuskapen-funtzioaren erreserba-eremuan inkardinatu behar den funtzioa da».

Beherago, 6. Zuzenbideko Oinarrian, honako hau aldarrikatzen dugu:

«Azaldutakoaren babesean, ondorioztatu behar da, Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokiola ikuskapen-funtzioa, zalantzarik gabe, erakundearen 2008ko sozietateen gaineko zergari dagokionez, Itunak horren inguruan ezarritako eskumen-banaketaren eskemaren arabera; izan ere, hori da zergadunak bat egindako irizpideak zuzenbidean zuzenduko dituzten araudi-aplikazioko eragiketa juridiko-tributarioak gauzatzeko Administrazio eskudun bakarra, araudi nazional jakin batek Erkidegoaren

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
6/2014	R21/2015	02-12-2015	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Egiatzapen-jardueretarako administrazio eskuduna. 2010Eko ekitaldia.

ordenamenduaren aurkakotzat jo duen Europako Batzordearen erabakiaren saiaturako gauzapearen ondorioz. Eta, azken finean, kasu honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiari zalantzarik gabe egotzi beharreko aztertutako zergapekoa ikuskatzeko gaitasunak eraginkortasun osoa eta baztertzailea azaltzen duela, zergapekoari aplikagarriak zaizkion kuota-kenketak zehazteko, alde aurretik, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak behin-behineko zehaztapen-gaitasunak erabiliz eta aurkakoak izan daitezkeen gauzatutako kudeaketako administrazio-jarduera zehatzak kanpo utzita; hori Gipuzkoako Foru Aldundiak ikuskapen-gaitasun horiek gauzatu ez balitu ere.

Eta hori, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Tributuen Ikuskapenak 2010eko maiatzaren 5eko txostenean egindako interpretazioarekin ados gauden ala ez alde batera utzita. Hori merkataritza-funtsen amortizazioari buruzko 2009/10/28ko Europako Batzordearen Erabakiak Gipuzkoako araudi fiskalaren gainean dituen garrantziari eta eraginei buruzkoa da, eta Arbitraje Batzordearen erabaki-eremutik kanpo dago».

Ondorioz, Administrazio jakin batek ikuskapen-eskumena izanda (oraingoan foralak eta, zehazki, Gipuzkoakoak), beste Administrazioak, estatukoak, ezin ditu eskumen horri jaramonik egiten ez dioten jarduerak gauzatu. Hori horrela da, alde batera utzita, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziak Gipuzkoako Foru Aldundiaren tributuen ikuskapenak 2013ko otsailaren 15eko txostenaren bidez, goiburuan agertzen diren zergapekoaren egiaztapeneko ikuskapen-jarduerak amaitutzat jotzen direla aitortzera bultzatu duen interpretazioarekin bat egiten duen ala ez (Zergapekoa: 1. ERAKUNDEA, Zerga-kontzeptua: Balio erantsiaren gaineko zerga; Aldia: 2010/01/01-2010/12/31). Izan ere, borondatez aitortu ditu bere eragiketak, horregatik, espedientea Foru Ogasun horretako artxibora pasatzea proposatuta»).

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
6/2014	R21/2015	02-12-2015	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Egiaztapen-jardueretarako administrazio eskuduna. 2010Eko ekitaldia.

7. Baina gehiago dago; ekainaren 28ko R13/2013 ebazpenean (29/2010 espedientea) adierazi genuen, Administrazio batek ikuskapen-eskumena ez duenean (kasu honetan, estatukoak), ezin dituela halako eskumenak bere gain hartu, nola kalifikatzen dituen alde batera utzita. Horren ustez, bere eskumena gauzaten ez duenean edo ondo gauzaten ez duenean, gauzatzera bultzatu behar du hori, dagokion Txostena bidalita.

Aipatutako 2015eko ekainaren 11ko Auzitegi Gorenaren Epaiaren Hirugarren Oinarriak esan bezala, aipatutako Txostenaren bidalketa bat dator Zerga Kontrolari buruzko Lantaldearen Ondorioekin eta Akta Bakarrekin. Horietan, honako hau aurreikusten da: «Zergadun jakin baten gaineko ikuskapen-eskumena ez duten administrazioek eskuduna bultzatu dezakete lurralde bakoitzeko eragiketa-bolumena egiaztatzerako. Horretarako, ikuskapen-eskumenik gabeko Administrazioak txostena bidaliko dio eskudunari, zergadunaren inguruan lortutako datuekin, horretarako beharrezkoak diren datuak hartzean datzan jardueraren bidez».

8. Zerga Administrazioko Estatu Agentziak Gipuzkoako Foru Aldundiari bidali zizkion 1. ERAKUNDEAREN ENPRESA TALDEARI buruzko 2012ko maiatzaren 24ko txostena, Aragoiko Ikuskapenaren Informazio Esanguratsuen Fitxa eta 1. ERAKUNDEARI buruzko txostena eta dokumentazioa. Bere aldetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak egiaztatzerako ikuskapen-jarduerak gauzatu zituen. Zerga Administrazioko Estatu Agentzia horiekin ados ez badago ere, Arbitraje Batzordeak ez du horien emaitza baloratzeko eskumenik.

9. Irailaren 9ko R17/2013 ebazpenean, Arbitraje Batzordeak egiaztapen-jardueren izaeraren inguruko iritzia eman du, esanez, «barne-eremuan, zenbait ñabardurekin, Lurralde Historiko bakoitzak ikuskapen-jarduerak eta prozedurak zer diren zehaztu dezakeela. Hortik, Gipuzkoak eta Arabak (baina ez Bizkaiak)

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
6/2014	R21/2015	02-12-2015	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Egiaztapen-jardueretarako administrazio eskuduna. 2010Eko ekitaldia.

egiaztapen-jarduerak arautu izana; izan ere, euren ustez, ikuskapen-prozeduraren hasiera jakinarazi aurreko jarduerak dira baina, nolahi ere, ez dute ukatzen jarduera horiek ikuskapen-jarduerak direnik». Zehazki, martxoaren 8ko 2/2005 Tributuen Foru Arau Orokorrak (Gipuzkoako Lurralde Historikokoak) Ikuskapen Jarduerari eta Prozedurari eskaintzen die bere IV. Kapitulua, 135. artikulutik 163. artikulura. Egiaztapen- eta ikerkuntza-prozedurari buruzko 3. Atala 142. artikulutik 153. artikulura doa. Egiaztapen- eta ikerkuntza-prozeduraren hasierari buruzko 144. artikulua honako hau adierazten du 3. atalean: «Prozedura hasteko erabakia hartu aurretik, aurretiazko egiaztapen-jarduerak gauzatu ahal izango dira, dena delako kasuaren zer-nolakoak hobe ezagutzeko eta prozedura hastea komeni den jakiteko.

Kasu honetan, gauzatutako jarduerak ez dituzte errekerimendu administratiboak kontuan hartuko, Foru Arau honen 27. artikularen 1. atalean aurreikusitako helburuetarako».

10. Beraz, Arbitraje Batzordearen ikuspegitik, Gipuzkoako Foru Aldundiak alde aurretik gauzatutako egiaztapen-jarduerak ikuskapen-jarduerak dira. 2013ko otsailaren 15eko txostenean, Ikuskapeneko Zuzendariordetza Orokorrak honako hau adierazten du, besteak beste: zergapekoa 1. ZENBAKIA planean sartu zela, Zaragozako 1. UDALERRIAN, 2007an eta 2008an gauzatutako higiezin eragiketen aitortzea egiaztatzeko; ikuskapenak eskatuta, 2012/06/22ko eta 2012/07/23ko eginbideen arabera, dokumentazio jakin bat ekarri zela; zergapekoak 2010eko aitortzen aurkeztu zituela, hurrengo ekitaldirako konpentsatu beharreko 9. KOPURUA euroko urteko azken emaitzarekin; 2013ko otsailaren 6an, 1. ERAKUNDEAK 4. KOPURUA euroko eragiketa-bolumena eta 1. UDALERRIKO Udalari dagozkion «urbanizazio-kargen» kontzeptuarengatik fakturatu beharreko egindako lan osoaren % 46,02ri dagokion 3. KOPURUA euroko jasanarazitako kuota 2010eko ekitaldiko aldiari sartzeko espedientean jasotako eskaera aurkeztu duela; aktuarioak

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
6/2014	R21/2015	02-12-2015	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Egiaztapen-jardueretarako administrazio eskuduna. 2010Eko ekitaldia.

egiaztatu zuela 1. ENPRESAK 2. ERAKUNDERAKO eta, ondoren, 1. ERAKUNDERAKO gauzatutako eragiketen fakturak 2007ko eta 2008ko BEZetan aitortu zirela, 2012ko uztailaren 10ean amaitutako 2012/NNN espedientean; espedientean lanak gauzatzeko kontratua eta 1. ENPRESAK igorritako fakturak agertzen direla; 2013ko otsailaren 11n, Foru Administrazioak 2010eko ekaineko eta ondoko aitopenen edukiak aldatu dituela; zergapekoa konkurtso-prozesuan dagoela murgilduta, 2011ko ekainaren 22tik aurrera.

Gipuzkoako Foru Aldundiak gauzatutako egiaztapen-jarduerak ikuskapenekoak izango ez balira ere, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak ezingo litzuke ikuskapen-eskumen horiek bere gain hartu, ezta Gipuzkoako Foru Aldundiaren gelditasun hipotetikoaren kasuan ere. 2013ko otsailaren 15ean amaitutako Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ikuskapen Zuzendariorde Orokorrak gauzatutako egiaztapen-jardueren emaitza Zerga Administrazioako Estatu Agentziari jakinarazi zitzaion. Aldiz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ogasun eta Finantza Sailaren BEZ Kudeaketa Zerbitzuak 2013ko otsailaren 14an emandako eta igorritako behin-behineko likidazioak ez ziren jakinarazi, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak 2013ko urriaren 18an eskatu zituen arte. Baina, berriro ere, azken hori ez da, gatazkaren ikuspegi zorrotzetik, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak hasitako jarduerekin jarraitzeko argudioa.

11. Esan bezala, ikuskapen-eskumena ezin da partekatu. Alde horretatik, mutatis mutandis kontuan izan behar da, 29.Sei artikulua eratzen duen ikuskapen-arloko eskumen-esparrua Administrazio bakar baten kontuhartzaitzarentzat bereizten dela akta bakarreko erregimenean (eta hala adierazten da Itunaren Batzorde Mistoaren Hitzarmenaren 1/2007 aktan); hau da, Itunean ezarritako arauen arabera, ikuskapen-eskumena dituen Administrazioak eragiketa-bolumenaren arabera hainbat Administrazioetan zergak ordaindu behar dituen zergadunaren zerga-egoera erregularizatuko du, bakoitzari dagokion tributazio-proportzioa barne hartuta, bakoitzaren berezko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
6/2014	R21/2015	02-12-2015	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Egiaztapen-jardueretarako administrazio eskuduna. 2010Eko ekitaldia.

egiaztapen- eta ikerkuntza-gaitasunak kaltetu gabe euren lurralde-eremuan. Horiek egotzi zaizkion tributazio-ehunekoaren zuzenketa egiaztatzeko soilik gauzatu ahal izango da, artikulua berean ezarritako mugekin, uztailearen 7ko 332/2014 eta 333/2014 Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiaren Epaiak jaso bezala.

12. Balio erantsiaren gaineko zergaren kudeaketari buruz ari garenez, jarraian, maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoaren Ekonomia Itunaren 29. artikulua Bat, Lau eta Bost atalak errepikatuko ditugu:

29. artikulua Zergaren kudeaketa eta ikuskapena

Lehena. Zerga-kitapenen emaitza dagokien administrazioei egotzi beharko zaie, lurralde bakoitzean egutegiko urtebetean lortu den kontraprestazio-kopuruaren arabera eta balio erantsiaren gaineko zerga alde batera utzita. Kontraprestazio horiek, hain zuzen ere, ondasunekin eta zerbitzuekin egindako entrega eta eskaintzei dagozkie, batzuetan zergapetu eta beste batzuetan salbuetsi egingo direnak eta, salbuetsitakoen kasuan, kenketa-eskubidea dakartenak.

(...)

Lau. Subjektu pasiboek zergaren aitortpen-likidazioak aurkeztuko dizkiete zerga ordainarazteko eskumena duten administrazioei. Aitortpen-likidazio horietan, beti ere, aplikatu beharreko proportzioak eta administrazio batari edo besteari dagozkion kuotak jaso beharko dira beti.

Bost. Bidezkoak diren itzulketak egitea administrazioen lana izango da, bakoitzari dagokion proportzioan».

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
6/2014	R21/2015	02-12-2015	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Egiaztapen-jardueretarako administrazio eskuduna. 2010Eko ekitaldia.

Ez da eztabaidan jartzen Administrazio interesdunek (Zerga Administrazioko Estatu Agentzia, Gipuzkoa eta Bizkaia) eskumen kudeatzaileak dituztela; izan ere, ikuskapenaren arloan ez bezala (Administrazio baten eskumenak besteena ukatzen du), kudeaketaren arloan, eskumena partekatua da, baina ez da Ekonomia Itunarekin bat gertatzen, Administrazio baten kudeaketa-eskumenen jardura dela eta, beste Administrazioaren ikuskapen-eskumenei jaramonik ez egitea. Kasu horretan, irailaren 9ko R17/2013 ebazpenean (21/2010 espedientea) landutakoaren alderantzizkoa gertatu da.

13. Alde horretatik, ezin da ahaztu, 2013ko irailaren 23an, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak erakundeari jakinarazi ziola 2010eko ekitaldiko 06 aldiko BEZaren inguruko prozeduraren ebazpen zehatza. Horren bidez, honako hau ondorioztatzen da: «prozedura hori eragin zuten jazoerak argi utzita, bulego honek jakinarazten dizu, indarrean dagoen araudiaren arabera, ezin dela zerga-egoera erregularizatu».

- Era berean, kontuan izan behar da, 2013ko irailaren 23an, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak egiaztapen mugatuko prozeduraren hasiera jakinarazi ziola erakundeari, 2010eko ekitaldiaren 12 aldiko BEZaren inguruan, alegazioen izapidea eta aldi baterako likidazioaren proposamena jakinarazita, honako irismenarekin:

«*Erregimen orokorreko eragiketen zerga-oinarriengatik eta sortutako kuotengatik aitortutako datuak aldi horretan sortutako zerga-gertaerekin bat datozela egiaztatzea, 2013.02.06ko idazkiari eta RGE 00NNNNNN 2013ri dagokienez.

*Urteko Erregularizazio Emaizaren kontzeptuan aitortutako zenbatekoa egiaztatzea, 12/2002 Legearen 29. Artikuluaren arabera.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
6/2014	R21/2015	02-12-2015	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Egiaztapen-jardueretarako administrazio eskuduna. 2010Eko ekitaldia.

*Aurrekoaren ondorioz aldatutako tributazio-ehunekoa berriz kalkulatzea».

Azkenik, gogoratu behar da, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak zegokion likidazio-proposamena jakinarazi ziola erakundeari, eta horrek alegazio-idazkia aurkeztu zuela horren aurka. Horiek gaitzetsi egin ziren, eta zegokion likidazioa eman zen; hori erakundeari jakinarazi zitzaion 2013ko urriaren 30ean, sartu beharreko 6. KOPURUA euroko kopuru osoa eskatuta. Horietatik, 7. KOPURUA euro kuotari dagozkio, eta 8. KOPURUA euro, berriz, berandutze-interesei. Ondorioz, Estatuko Administrazioari egozgarria zaion tributazio-ehunekoa aldatzen da, % 69,04an kokatuta.

Hitz batez, gure ikuspegitik, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak gauzatutako jardueren azken emaitza ez dago Ekonomia Itunaren babespean. Esan bezala, aipatutako 2015eko maiatzaren 11ko Auzitegi Gorenaren Epaitik (Hirugarren Oinarria) ondorioztatzen da, Zerga Administrazio bakoitzarentzako tributazio-proporzioa zehazteko, 2010ean, 1. ERAKUNDEAK balio erantsiaren gaineko zergarengatik aitortutako eragiketen bolumen osoaren egiaztapena Gipuzkoako Foru Aldundiak bakarrik gauzatu zezakeela, horrek baitzuen ikuskapen-eskumena.

14. Auzitegi Gorenaren aipatutako Epaiak Arbitraje Batzordeak irailaren 9ko R17/2013 ebazpenean (21/2010 espedientea) hartutako hitzarmena berresten du. Horren 5. Zuzenbideko Oinarrian, honako hau adierazi genuen:

«Eragiketa-bolumena zehazteko eskumena ikuskapen-eskumenari lotuta dago; hortik, Ekonomia Itunaren aipatutako 19. eta 29. artikuluek ere gai hori lantzea. Biek dute eduki hau jasotzen duen 4. atal bat: Administrazio eskudunak egiaztapenetan zehaztutako proporzioak kitatutako betebeharrei dagokienean ere bete beharko ditu subjektu pasiboak.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
6/2014	R21/2015	02-12-2015	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Egiaztapen-jardueretarako administrazio eskuduna. 2010Eko ekitaldia.

Horrek ez du esan nahi bi administrazioen artean behin betiko onartzen direnak bete behar ez direnik».

Laburbilduz, sozietateen gaineko zergarako zein balio erantsiaren gaineko zergarako, Ekonomia Itunak zehazki ezartzen ditu gatazka hau ebazteko funtsezko bi arau:

«Bat, ikuskapen-eskumena duen Administrazio bakar bat dagoela (...). Ez da beti horrela izan, 2003ko urtarrilaren 10eko Euskadiko Justizia Auzitegi Gorenaren Epaiak adierazi bezala (2008ko otsailaren 5eko Auzitegi Gorenaren Epaiak berretsia); izan ere, hasieran, Ekonomia Itunak negozio-zifra erlatiboaren sistema ezartzen zuen. Horren ondorio saihestezina zen erregimen horren menpeko egiaztapena eta ikerkuntza bi Administrazioei zegokiela (maiatzaren 13ko 12/1981 Legeak emandako idazketako Ekonomia Itunaren 22.3 artikulua), baterako ikuskapen-jardueraren urteko planen prestaketa eta, beste kasu batean, egindako akten lekualdaketa edota baterako egiaztapena kaltetu gabe. Egoera hori abenduaren 26ko 27/1990 Legea indarrean sartu zen arte mantendu zen; horrek Ekonomia Ituna aldatzen du partzialki).

Eta bestea, Administrazio bakoitzari tributatu beharreko bolumena eta tributazio-proporzioa erabaki ditzakeen bakarra ikuskaritzako eskumena duen Administrazioa dela (...). Berriro ere, ikuskapen-eskumena Administrazio baten alde aitortzen da, monopolio-izaerarekin.

15. Hitz batez, euren izendapena alde batera utzita, Administrazio batek gauzatutako jarduerak beste baten ikuskapen-jarduerak hartzen dituztenean, kasu honetan bezala, ez da Ekonomia Itunaren arabera jarduten. Horrela, Zerga Administrazioko Estatu Agentziak 1. ERAKUNDEAK 2010ean aitortutako eragiketen bolumen osoa egiaztatzen duenean, balio erantsiaren gaineko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Inplikaturako administrazioak</i>		<i>Azalpena</i>
6/2014	R21/2015	02-12-2015	Gipuzkoako Foru Aldundiari	Estatuko Administrazioa	BEZ. Egiaztapen-jardueretarako administrazio eskuduna. 2010Eko ekitaldia.

zergan, Zerga Administrazioen artean izan litezkeen konpentsazioak zehazteko, ez du Zuzenbidearen arabera jarduten; izan ere, aipaturako jardueren gauzapena Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio.

Beraz, Arbitraje Batzordeak

HONAKO HAU ADOSTEN DU:

1.- Aitortzea Estatuko Zerga Administrazioak ez duela 1. ERAKUNDEAREN (IFZ: ----) inguruan gauzatutako egiaztapen-jarduerak gauzatzeko eskumena, gatazka honetan aztertutako 2010eko ekitaldiko balio erantsiaren gaineko zergari dagokionez; izan ere, Ekonomia Itunak aitortutako egiaztapen- eta ikerkuntza-gaitasunek ez dituzte babesten.

2.- Jarduerak amaitzea eta artxibatzea.

3.- Hitzarmen hau Gipuzkoako Foru Aldundiari, Zerga Administrazioko Estatu Agentziari eta 1. ERAKUNDEARI jakinaraztea.